



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko maiatzaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean, eta telematikoki

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:40 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko apirilaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- 2020ko martxoaren 30eko 157/20 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez, Udalaren 2019ko aurrekontu propioaren likidazioa onartzen da.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 5/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, IBERDROLA CLIENTES SAU enpresari Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko esparru-akordioan oinarritutako kontratuaren 1. eta 2. sortak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren 2020ko lanpostu-zerrendaren eta plantilla organikoaren aldaketa partziala.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalean modernizazio- eta berrikuntza-teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio ireki bidez betetzeko oinarri arautzaileak.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Oriko herriko jaiegunaren proposamena 2021erako.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO APIRILAREN 30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarraren 2020ko apirilaren 30eko ohiko bilkurako akta.

2.- 2020KO MARTXOAREN 30EKO 157/20 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ, UDALAREN 2019KO AURREKONTU PROPIOAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 157/20 dekretua 2020ko martxoaren 30ekoa da eta, horren bidez, Oriko Udaleko 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzen da. Dekretuak honela dio, hitzez hitz:

Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan



jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen. Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n	7.469.413,28
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n: Aurrekontuko zordunak: 4.373.247,77 Aurrekontuz kanpoko zordunak: 707.942,87 Aplikatu gabeko kobrantzak: 0,00	5.081.190,64
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: 407.585,02 Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 1.626.403,51 Aplikatu gabeko ordainketak: 0,00	2.033.988,53
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	10.516.615,39
5.- Saldo kobragaitzak	365.195,27
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua	12.146,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6)	10.139.274,12

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza	3.052.876,29
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	-139.722,11
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	1.763.832,67
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	+85.696,41 -94.949,4
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	4.667.733,77



KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak	2.447.072,90
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak	677.259,55
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2)	3.124.332,45

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 5/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 151.480 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 5/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu-aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 151.480 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.



e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko txandan, Bakartxo Oliden zinegotziak hartzen du hitza, Merkataritza eta Turismo batzordeko buru den aldetik, eta bertaratutakoei Orioko Udalak sustatutako ekimen honen berri ematen die: COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz kaltetutako Orioko merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduei erosketa-bonuen bidez laguntzeko ekimena.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, IBERDROLA CLIENTES SAU ENPRESARI GIPUZKOAKO FORU-KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUAREN 1. ETA 2. SORTAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ADJUDIKATZEA IBERDROLA CLIENTES SAU enpresari Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez Orion energia elektrikoaren hornidura kontratatzekeo esparru-akordioan oinarritutako kontratuaren 1. eta 2. sortak, esparru-akordio horren ondorioetan ezarritako terminoetan.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2020KO LANPOSTU-ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA PARTZIALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lanpostu-zerrendan izandako aldaketa honako hau da: karrerako funtzionario lanpostu bat sortu da Orioko Udaleko plantilla organikoan, ezaugarri hauek dituen: modernizazio- eta berrikuntza-teknikaria; administrazio bereziko eskalakoa; azpieskala tekniko; goi-teknikari klasekoa; A sailkapen-taldeko titulazio-mailakoa, A1 sarrerako azpitaldekoa; udal-taulan 15. ordainsari-maila daukana; eta 4 hizkuntza-eskakizun nahitaezkoa duena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko martxoaren 6an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren,



HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2020rako plantilla organikoaren eta lanpostu-zerrendaren aldaketari, goian azaldutako terminoetan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza.

b) Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamaziorik jasotzen ez bada, espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEAN MODERNIZAZIO- ETA BERRIKUNTZA-TEKNIKARI LANPOSTU BAT LEHIAKETA-OPOSIZIO IREKI BIDEZ BETETZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko martxoaren 6an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko Udalean modernizazio- eta berrikuntza-teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio ireki bidez betetzeko oinarri arautzaileak. Lanpostuaren eginkizunak hauek dira, oinarrietatik hitzez hitz jasota:

- *Udalaren baliabide informatikoen planifikazioa, mantenua, kudeaketa eta garapena.*
- *Erabiltzaileen ekipoen edo/eta aplikazioen erabilpenean sortzen diren arazoak konpondu eta bideratu.*
- *Udal zerbitzuak etengabe teknologia digitalera egokitu eta etengabeko berrikuntza neurriak inplementatu.*
- *Udal zerbitzu guztientzako informatika arloko euskarri izatea.*



- *Baliabide elektronikoek eragindako etengabeko aldaketa eta berrikuntzei aurre egiteko langileen formazioa beharrei erantzun.*
- *Udal egoitza elektronikoaren eta web orriaren (hala nola sare soziala eta komunikazio tresna ezberdinak) funtzionamendu egokia antolatu eta bideratu.*
- *Espediente kudeatzaile informatikoaren mantenua, eguneraketa eta inplementazioa.*
- *Gai informatikoei buruzko kanpo harremanekiko ordezkaritza eginbeharrak betetzea.*
- *Udalaren telefonia eta telekomunikazio zerbitzuen ardura.*
- *Udalaren ikus-entzunezko sistemen eta ekipoen ardura.*
- *Administrazio elektronikorako zerbitzuak ezarri eta garatzeko ardura, herritarren arreta zerbitzuak barne.*
- *Elkarreragingarritasun elektronikorako sistemak eta zerbitzuak kudeatzea, bai autonomia-erkidegoko erakundeekin, bai estatukoekin (SCSP zerbitzuak).*
- *Monitorizazio sistemak eta GIS metodoak antolatu, planifikatu eta kudeatu.*
- *Sistema eta baliabide elektronikoetan lege eta arauak eragindako berrikuntza eta aldaketak inplementatu udal funtzionamenduan.*
- *Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.*

Emandako botoa azaltzeko txandan, Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN taldearen izenean, eta udalbatzarra osatzen duten zinegotzi guztiak zoriontzen ditu, oinarri arautzaileak onartzeko aldeko botoa eman dutelako. Adierazten du, baita ere, badirela sei edo zortzi urte lanpostu hori betetzeko beharra aurreikusi zela, nahiz eta lanaldia, hasieran, % 50ekoa izatea planteatzen zen.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du Orioko Udalean modernizazio- eta berrikuntza-teknikari lanpostua betetzea behar-beharrezkoa dela, besteak beste, administrazio elektronikoa abian jartzeko.

Azkenik, Xabier Ibarguren zinegotziak hartzen du hitza, EH BILDuren izenean, eta adierazten du Orioko Udala egoera kaskarrean dagoela informatikako beharrei dagokienez eta, beraz, guztiz beharrezkoa dela Orioko Udalean modernizazio- eta berrikuntza-teknikari lanpostua betetzea. Bestalde, udal gobernu-taldea zoriontzen du, oinarri arautzaileak udalbatzarrerara ekartzeko erakutsi duen azkartasunagatik.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNAREN PROPOSAMENA 2021ERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko maiatzaren 26an egindako bilkuran diktaminatu du Orioko herriko jaieguna 2021. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2021. urtean honako hau izatea: ekainaren 29a, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuiperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren maiatzaren 5eko 56/2020 dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2021. urterako.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du ez zaiola egokia iruditu Xabier Ibarguren zinegotziak udal-gobernuari bakarrik ematea zorionak Orioko Udaleko modernizazio- eta berrikuntza-teknikari lanpostua betetzeko oinarri arautzaileak azkar onartzeagatik; bere ustez, udalbatzarreko kide guztiei eman behar zaizkie zorionak, gaia aho batez onartzeagatik.

Bestalde, Lourdes Salsamendi zinegotziak adierazten du bere talde politikoarentzat oso positiboa dela Orioko Udalak sustatutako ekimena, COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz kaltetuak izan diren Orioko merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduei erosketa-bonuen bidez laguntzeko. Horregatik, zorionak ematen dizkie parte-hartzaile guztiei eta adierazten du espero duela ekimenak arrakasta izatea.

Xabier Ibarguren Azkue zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, eta adierazten du orain dela urtebete EH BILDU koalizio politikoak irabazi zituela Orioko udal-hauteskundeak, eta azken urte honetan bere talde politikoak saiakera egin duela akordio zabalak lortzeko —ahal bada, aho batezkoak—. Adierazten du ia kasu guztietan lortu dela adostasun hori eta, horregatik, zorionak ematen dizkie Orioko udalbatzarra osatzen duten zinegotzi guztiei.

Alkateak hartzen du hitza eta zorionak ematen dizkie Orioko Udalak sustatutako erosketa-bonuen ekimena antolatzen parte hartu duten guztiei



ORIOKOU DALA



Azkenik, Ainara Munduate zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, eta Ortzaika auzoko eta hondartza eremuko autobide azpiko autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzaren alderdi garrantzitsuenak laburtzen ditu.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,